



Nor da?

Saio honetan Ana eta Michael ezagutuko ditugu, eta deskribapen laburrak egiten ikasiko dugu. Horretarako, Euskal Herriko eta munduko pertsonaia famatuak erabiliko ditugu. Azken lanean famatu bat deskribatuko duzu.

In this lesson we will meet Ana and Michael and learn how to give a brief description of a person. To do so, we will use descriptions of some famous people. In the final task you will describe a famous person.

Irakurmena

Ana eta Michael, gure lagunak, Euskal Herrian daude. Baina, nortzuk dira? Zer dira? Irakurri testuak eta erantzun galderei.

Our friends Ana and Michael are in the Basque Country. But who are they? What are they? Read the texts and find out.



Ezagutu gure lagunak

Ana Erneta

Ni Ana Erneta naiz. Argentinakoa naiz. Mendozakoa naiz. Mendoza hiri handia da. Orain Buenos Airesen bizi naiz, 35 urte ditut. 1,72 zentimetro naiz eta 66 kilo. Ile beltza dut. Kazetaria naiz, *Clarín* egunkarian. Nire lana oso interesgarria da. Ez nago ezkontuta, eta ez dut seme-alabarik. Gurasoak, ahizpa eta amona bizi gara etxean.

Michael Ludwig

Ni Michael Ludwig naiz. Alemaniakoa naiz. Berlinen bizi naiz. 40 urte ditut. 1,82 zentimetro naiz eta 83 kilo. Ile zuria dut. Unibertsitateko irakaslea naiz. Hizkuntzalaria naiz. Bakarrik bizi naiz. Banatuta nago. Orain oso ondo bizi naiz. Txakur handi bat dut, *Eis*. Nire gurasoak Frantziako kostaldean daude oporretan, Nizan. Bi anaia ditut.

Aukeratu erantzun egokia. Now choose the right answer.

<p>Nongoa da Ana?</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Argentinakoa <input type="radio"/> Argentinako 	<p>Zenbat urte ditu Anak?</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> 35 urte ditut <input type="radio"/> 35 urte ditu
<p>Eta Michael?</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Alemaniako <input type="radio"/> Alemaniakoa 	<p>Zer da Michael?</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Michael irakaslea da <input type="radio"/> Irakaslea Michael da
<p>Non bizi da Ana?</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Mendozan bizi da <input type="radio"/> Buenos Airesen bizi da 	<p>Eta Ana?</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Ana da kazetaria <input type="radio"/> Kazetaria da Ana
<p>Eta Michael?</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Berlin <input type="radio"/> Berlinen 	

Ana kazetaria da

azalpena

IZAN aditza

In this lesson you are going to study the verb IZAN, which means 'to be'.

Demonstratives /erakusleak		Verb IZAN aditza		Interrogatives	
HAU	This	NI	NAIZ	NOR ZER ZEIN	Who What Which
HORI	That	ZU	ZARA		
HURA	That (further away)	HURA	DA		

These words allow us to put together basic question and answer structures.

Sentence order is not the same as in English. The key to the answer – the syntagma word or group of words – goes before the verb.

Nor da irakaslea?	Zer da Ana?
Irakaslea Michael da Michael da irakaslea	Ana kazetaria da Kazetaria da Ana

Jarri aditza. Write the verb.

Ni Juan _____.
 Zu Aitor _____.
 Hura Vanesa _____.
 Zu irakaslea _____.
 Irakaslea Imanol _____.
 Ni mekanikoa _____.
 Zu Australiakoa _____.
 Hori telebista _____.
 Mikel hura _____.
 Zu ez _____ Carmen.
 Ni Lazkaokoa _____.
 Itziar Ituño aktorea _____.
 Zu ikaslea _____.

Laguntza!

The usual sentence order is:

Subject-adjective-verb: Etxea polita da.

BAT=A

It is a house= etxea da

This is a car = Hau autoa da.

Itzuli. Translate.

That is a book. (liburua).

I am a writer. (idazlea).

You are Victor.

Marisa is from Lazkao.

Jon is an actor. (aktorea).

You are a police officer. (polizia).

That is me.

This is a television. (telebista).

You are a teacher. (irakaslea).

Ariketa-Exercise

Ikusi irudia eta erantzun galderai.

Look at these pictures and answer the questions.

Nor da? Zer da?

Arantxa eta Nekane

Nor dira horiek?



Alberto

Nor da hori?



Medikua

Zer da Asun?



Mekanikariak

Zer dira Aitor eta Borja?



Haurrak

Zer dira hauek?



Maria

Hau Maria da?



Irakaslea

Joseba mekanikaria da?



Mikel eta Aitor

Hauek lagunak dira?

- Nor dira horiek?
- Nor da hori?
- Zer da Asun?
- Zer dira Aitor eta Borja?
- Zer dira hauek?
- Hau Maria da?
- Joseba mekanikaria da?
- Mikel eta Aitor lagunak dira?

Hiztegia

Ikusi bideoa hiru edo lau aldiz eta saiatu lanbideen izena buruz ikasten.
Watch the video three times and try to memorize the names of certain jobs.

Lanbideak



Zutabeak lotu. Match the words

Arrantzalea
Erizaina
Polizia
Tabernaria
Igeltseroa
Irakaslea
Kale-garbitzailea
Kirolaria
Langilea
Medikua
Mekanikaria
Bulegaria, idazkaria
Baserritarra
Dendaria
Kazetaria
Botikaria

Doctor
 Mechanic
 Sports player
 Chemist
 Brick layer
 Waiter / waitress
 Journalist
 Shop keeper, sales
 person
 Farmer, peasant
 Worker
 Nurse
 Police officer
 Teacher
 Street cleaner
 Office worker



Elkartze-ariketa


Lotu elkarrizketak eta irudiak
Link the conversations and the texts

Elkarrizketak

- Hauek ere irakasleak al dira?
- Ez, hauek ez. Hauek ikasleak dira.
- A zer umorea!
- Bai, hauek ere alaiak dira. Jolasean ari dira.



- Hau bulegoa da. Kaixo!
- Kaixo, Jon!
- Nor da hori?
- Hori Miren da. Zuzendaria.
- Oso langilea da.
- Eta bestea?
- Itziar. Bulegaria da. Gaztea da, baina oso bizkorra.



- Aupa! Zer moduz?
- Ongi, ongi, ostirala da eta...
- Nortzuk dira horiek?
- Horiek irakasleak dira: Rakel, Garbiñe eta Xabier.
- Oso onak eta alaiak dira.
- Bai, eta jatorrak...



- Kaixo!
- Aupa, egun on! Zu zara bulegari berria?
- Bai, ni naiz.
- Sartu, sartu eta ikusi euskaltegia.



Mendoza Argentinan dago

azalpena

Non dago? Where is?

DAGO is the third person of the verb EGON.

The verb EGON means TO BE (in a situation or circumstances). It can also mean TO HAVE.

- Non dago Lazkao?
- Lazkao Gipuzkoan dago.

non

Bokala- N		Kontsonantea- EN	
LazkaoN ArgentinaN TxinaN PeruN OsloN	In Lazkao In Argentina In China In Peru In Oslo	IranEN ParisEN IstanbulEN MadriEN	In Iran In Paris In Istanbul In Madrid

Ariketak-exercises

Adibidea. Example.

Non dago Paris?

- Paris Frantzian dago.
- Frantzian dago.
- Frantzian.

Use one of the three answers in the example.

Galdera		Erantzuna
		Respond following the example
Non dago Gasteiz?	Euskal Herria	
Non dago Madril?	Espainia	
Non dago Buenos Aires?	Argentina	
Non dago Rio de Janeiro?	Brasil	
Non dago Baghdad?	Irak	
Non dago Ankara?	Turkia	
Non dago Sidney?	Australia	
Non dago Budapest?	Hungaria	
Non dago Hamburgo?	Alemania	
Non dago Jakarta?	Indonesia	
Non dago Mosku?	Errusia	
Non dago Montreal?	Kanada	
Non dago Caracas?	Venezuela	
Non dago Teheran?	Iran	
Non dago San Salvador?	El Salvador	

Ana Mendozakoa da

azalpena

Nongoa zara? Where are you from?

Adibidea- Example

Nongoa zara? Where are you from?
Ordiziakoa naiz. I am from Ordizia.

Michael Alemaniakoa da. Ana Ordiziakoa da.

NONGOA

Bokala- KOA		Kontsonantea- KOA/GOA	
LazkaoKOA	From Lazkao	IranGOA	From Iran
ArgentinaKOA	From Argentina	ParisKOA	From Paris
TxinaKOA	From China	IstanbulGOA	From Istanbul
PeruKOA	From Peru	MadrilGOA	From Madrid
OsloKOA	From Oslo	GasteizKOA	From Gasteiz

Ariketak-ejercicios

Nongoa da Messi?

- Messi Argentinakoa da.
- Argentinakoa da.
- Argentinakoa.

Galdera	Erantzuna Respond following the example
Nongoa da Atxaga?	Euskal Herria
Nongoa da Silvio Rodriguez?	Kuba
Nongoa da Rihanna?	Barbados
Nongoa da Antonio Banderas?	Espainia
Nongoa da Ivan Racitic?	Kroazia
Nongoa da Saramago?	Portugal
Nongoa da Nicole Kidman?	Australia
Nongoa da Polansky?	Frantzia
Nongoa da Angela Merkel?	Alemania
Nongoa da Lito Vitale?	Argentina
Nongoa da Berlusconi?	Italia
Nongoa da Isabel Allende?	Txile

Fororako

Mapa ikusi, auketatu bost leku eta galdetu: Nongoa da?
Look at the map, choose five places and ask a question.

Nongoa da? Non dago Wally?



Irakurmena

Irakurri testu hauek eta erantzun galderari.
Read these texts and choose the right answers.

Bi lagun



Itziar emakumea da. Ez da zaharra eta irakaslea da. Bilbokoa da, baina Donostian bizi da. Orain Donostian dago, Ondarreta hondartzan.

Nor da emakume hau?

- a) Emakume hau Itziar da.
- b) Itziar emakume hau da.
- c) Emakumea hau Itziar da.

Zer da Itziar?

- a) Irakaslea Itziar da.
- b) Itziar irakaslea da.
- c) Itziar Bilbokoa da.

Nongoa da Itziar?

- a) Bilbokoa Itziar da.
- b) Itziar ez da Bilbokoa.
- c) Itziar Bilbokoa da.

Itziar gaztea da?

- a) Bai, zaharra da.
- b) Bai, gaztea da.
- c) Ez, zaharra da.

Non dago Itziar?

- a) Itziar Bilbon dago.
- b) Itziar ez dago Donostian.
- c) Itziar Donostian dago.



Luis gizona da. Gasteizkoa da eta Gasteizen bizi da orain. Sendagilea da. Gaztea da eta oso ederra. Oso mediku ona da eta oso langilea. Orain oporretan dago. New Yorken dago. Bere anaia New Yorken bizi da.

Luis emakumea da?

- a) Bai, emakumea da.
- b) Ez, Luis gizona da.
- c) Bai, gizona Luis da.

Luis ederra da?

- a) Bai, ederra da Luis.
- b) Bai, Luis da.
- c) Bai, ederra eta langilea da.

Nongoa da Luis?

- a) Gasteizkoa da Luis.
- b) Gasteizkoa Luis da.
- c) Gasteizen bizi da Luis.

Non bizi da orain?

- a) Orain ez da New Yorken bizi.
- b) Gasteizen orain bizi da.
- c) Orain Gasteizen bizi da.

Non dago orain?

- a) Orain oporretan dago.
- b) Orain New Yorken dago.
- c) Orain ez dago New Yorken.

Irakurmena

Ana "Euskalduna" hotelean dago. Pozik dago, Euskal Herrian dago eta hori amets handia da. Euskal Etxean egindako lanak ikusten ari da. Anak ariketa hau egin zuen bere Euskal Etxean. Ea orain zuk egin!

Ana is at the Euskalduna hotel, where she has booked a room. Her great dream has come true: coming to the Basque Country. While she relaxes a little, she is revising a Basque exercise from her Basque centre. Let's see if you can do it too!

Euskal pertsonaiak

Lotu irudiak eta testuak.
Link the pictures and the texts



Pedro Miguel Etxenike

Zientzialaria da. Oso famatua da. Sari asko ditu eta Euskal Herriko Unibertsitatean katedraduna da eta doktorea Cambridgeko Unibertsitatean. Betaurrekoak ditu eta ile zuria. Izabakoa da. Izaba Nafarroan dago, iparraldean.

Lucia Lacarra

Dantzaria da, oso famatua da. Municheko Operako balleteko bakarlaria, solista, da. Zumaiakoa da, baina orain Munichen dago. Lan asko du eta gala asko ditu, famatuena 2007ko Urte Berriko Vienako kontzertua. Ile luzea eta beltza du. Oso argala da.

F. Muguruza

Abeslaria da. **Kortatu** eta **Negu Gorriak** taldeetako abeslaria. Bere azken diskoa "Euskal Herria Jamaika Clash" da. Jamaikan grabatuta dago. Diskoko musikariak Euskal Herrikoak eta Jamaikakoak dira. Bere bi anaiak ere- Iñigo eta Javier- musikariak dira.

Irungoa da eta Irunen bizi da. Irun Gipuzkoan dago, iparraldean.

Ainhoa Arteta

Emakume hau Tolosakoa da. Ile horia du. Alaba bat du. Abeslaria da, sopranoa. Lehiaketa asko irabazi ditu. Lehen New Yorken, baina orain Tolosan bizi da. Ile motza du, horia.

Orain, erantzun galderei. Now, answer the questions.

Zer da Etxenike?

Nongoa da sopranoa?

Non bizi da Ainhoa?

Non bizi da Negu Gorriak taldeko abeslaria?

Non dago Izaba?


Nor da zientzialaria?

Nongoa da dantzaria?

Non bizi da orain Lucia Lacarra?

Entzumena

Entzun eta asmatu nor diren gure pertsonaia famatuak.
Listen to the recording and guess who our famous people are.

Nor da?

Bernardo Atxaga?
Uxue Barkos?
Jose Luis Zumeta?
Garbiñe Muguruza?

ulermena

Orain, aukeratu erantzun egokia. Now, choose the right answer.

Nor da lehendakaria?

- d) Uxue lehendakaria da.
- e) Uxue da lehendakaria.
- f) Garbiñe da lehendakaria.

Zer da Bernardo?

- a) Idazlea Bernardo da.
- b) Bernardok liburu asko du.
- c) Bernardo idazlea da.

Zer da Uxue?

- d) Politikaria eta kazetaria.
- e) Politikaria Uxue da.
- f) Uxue Donostiakoa da.

Nongoa da Bernardo?

- a) Bernardo Zalduondokoa da.
- b) Bernardo Asteasukoa da.
- c) Asteasukoa Bernardo da.

Nongoa da Garbiñe?

- d) Caracaskoa Garbiñe da.
- e) Garbiñe ez da Caracaskoa.
- f) Garbiñe Caracaskoa da.

Non bizi da Zumeta?

- a) Zumeta Usurbilen bizi da.
- b) Zumeta Usurbilgoa da eta Usurbilen bizi da.
- c) Zumeta Usurbilgoa da, baina Gorritin bizi da.

Garbiñe Caracasen bizi da?

- a) Bai
- b) Ez bizi da Caracasen.
- c) Ez, Garbiñe ez da Caracasen bizi.

Nor da margolaria?

- a) Zumeta margolaria da.
- b) Usurbilgoa da margolaria.
- c) Zumeta da margolaria.

azalpena

Izen sintagma. Noun group

You will have noticed that common nouns take and A at the end. This is the article:

- Michael irakaslea **a** da.
- Maizpide euskaltegia **a** da.
- Hura etxea **a** da

The definite article is used much more in Basque than in English and goes at the end of the noun phrase. The normal order of basic noun phrases:

nombre	adjetivo	determinante
Emakume	gazte	a
Gizon	txiki	hau , hori, hura
Neska	jator	bat
Mendi	polit	...

Erne! A vs BAT

Emakumea: ezaguna da, mugatua. The woman. We are talking about somebody we know, somebody specific.

Emakume bat: ezezaguna, indeterminatua. A woman. We are talking about somebody we do not know, somebody unspecified.

Adibideak-ejemplos

- Emakumea	The woman
- Emakume gaztea	The young woman
- Emakume gazte hori	That young woman
- Gizona	The man
- Gizon txikia	The small man
- Gizon txiki bat	A small man
- Mendia	The hill
- Mendi polita	The beautiful hill
- Mendi polit hura	That beautiful hill

Trikimailua

When you do not remember the order or noun phrases, remember Basque surnames:

Etxeberria, Ormazabal, Kortabarria, Irigarai, Oianeder...

The cardinal number BAT (one) also goes at the end, but is used less often than in English, generally when the quantity must be specified.

Irakurmena eta ulermena

Irakurri testuak eta izenak jarri.

Read the texts and identify the people.

Nor da Nor?**1****2****3****4****5****6****7****8**

Arantxa bulegaria da. Ile beltza du. Betaurrekoak ditu, bisera ere bai. Ezkonduta dago, bi seme ditu. Alaia da, 40 urte ditu.

Betaurrekoak ditu eta ile motza. Mahaian eserita dago. Jertse beltza du. Gabriel irakaslea da, orain oporretan dago, Donostian. Hiru lagun ditu ondoan, Marina, Karmen eta Ane. Eskuinean Marina dago; ezkerrean Karmen, eta Karmenen ondoan, Ane. Gabriel oso pozik dago Donostian, hiri zoragarria da.

Oso pozik dago, oso gaztea da. Mikel da. 13 urte ditu. Mikel Bilbokoa da, baina orain ez da Bilbon bizi. Gernikan bizi da. Orain hondartzan dago, gurasoekin oporretan dago. Mundakan dago.

Hau Patxi da. Ez du betaurrekorik, baina bai bibotea. Bibote luzea du. Ile asko du eta pozik dago. Patxi enpresaria da. Lantegian langile asko du. Orain diru asko du eta lasai bizi da. Hiru etxe ditu: Bilbon, Gernikan eta Mediterraneoan. Arantxarekin ezkontuta dago.

Garbiñe gaztea da, 25 urte ditu. Baionakoa da, sendagilea da. Orain ez du lanik, baina gustura dago. Garbiñek senargaia du, Mikel. Mikel ez dago argazkian, orain itsasoan dago, surflaria da. Mikel Zarauzkoa da, udaltzaina da.

Gogoratu! Remember!



DU: has something
Irakasleak liburua du.



DITU: has several things
Irakasleak liburuak ditu.

Azken lana

Egin ariketak eta bidali irakasleari.

Do the exercises and send them to your teacher.

hiztegia

Ikasi adjektibo hauek ariketak egin baino lehenago
Learn these adjectives before doing the exercise

Gazte	Young	Handi	Big
Zahar	Old	Txiki	Small
Berri	New	Luze	Long
Polit	Pretty	Argal	Thin
Itsusi	Ugly	Ona	Good

All these adjectives can be declined: gaztea, gazte bat, mutil gazte hori. Handia, handi bat, etxe handia...

Ni Lazkaon bizi _____.
Zu Brasilen bizi _____.
Hura Frantzian bizi _____.
Mahaia polita _____.
Zu gaztea _____.
Ni ez _____ irakaslea.
Etxea txikia _____ da.
Zu ez _____ txikia.
Mikel Kolonbiakoa _____.
Caracas Venezuelan _____.

Deklinatu hitzak

Complete the sentences using NON or NONGOA.

NON	NONGOA
Ni Euskal Herri..... bizi naiz.	Pello Iruñea..... da.
Atenas Grezia..... dago.	Peter Ingalaterra..... da.
Pampa Argentina..... dago.	Khadim Senegal..... da.
Euskaltegia Lazkao..... dago.	Paola Argentina..... da.
Ni ez naiz Brasil..... bizi.	Zu Holanda..... zara.
Hura Irlanda..... bizi da.	Michael Danimarka..... da.

Entzumena

Entzun audioa eta zerrendatu famatuak grabazioaren arabera.
Listen to the recording and mark the famous people in the order they appear.

Famatuak**Erantzun galderi. Answer the questions.**

David Beckham ezkondata dago?
Nolakoa da George Clooney?
Nongoa da Shakira?
Shakirak Grammyrik badu?
Zer da Julia Roberts?
Nolako ilea du Julia Robertsek?

Euskara

Translate into Basque.

The book. The little book This small book.

That girl. That girl. That young girl.

The teacher. This teacher. This ugly teacher.

The house. This house. This big house.

A town. Pretty town. That pretty town.

A Mountain. A big mountain That big mountain.

One thing. A big thing. That big thing.

A car. A new car. That new car.

Testua osatu

Testua osatu 3. pertsonako aditzekin
Complete the text in the third person using the verb in the table on the right.

da
dago
ditu
du

Nor da Ana Erneta?

Ana Argentinakoa _____. Mendozakoa _____. Mendoza hiri handia da. Orain Buenos Airesen bizi da, 35 urte _____. 1,72 zentimetro da eta 66 kilo. Ile beltza _____. Kazetaria _____ *Clarín* egunkarian. Bere lana oso interesgarria da. Ez _____ ezkontuta, eta ez du seme-alabarik. Gurasoak, ahizpa eta amona bizi dira etxean.

Nor da Michael Ludwig?

Michael Ludwig Alemaniakoa _____. Berlinen bizi _____. 40 urte _____. 1,82 zentimetro da eta 83 kilo. Ile zuria _____. Unibertsitateko irakaslea _____. Hizkuntzalaria da. Bakarrik bizi _____. Banatuta _____. Orain oso ondo bizi da. Txakur handi bat _____, *Eis*. Bere gurasoak Frantziako kostaldean daude oporretan, Nizan. Bi anaia ditu.

Idatzi

Orain deskribatu pertsona famatu bat. Hurrengo saioan foroan edo taldeko blogean jarriko dugu zure lana.

Describe a famous person. In the next unit we will publish your work on the group forum or blog.

Pertsona hau orain hilda dago, baina eredia ona da.

Look at this description of a famous person who, unfortunately, died in 2009. Use it as an example.

Gure pertsonaia abeslaria da. Dibortziatuta dago. Bi edo hiru seme-alaba ditu, ez nago seguru. Lehenengo semearen ama oso famatua da. Abeslari famatu baten alaba da. Bere aita rock-aren erregea da, Elvis. Bigarren seme edo alabaren ama erizaina da. Gizon honek rantxo handia du, eta atrakzio parke bat ere bai. Lehen beltza zen, orain? orain... txuria da. Lau anaia ditu eta arrebak ere bai. Arrebak ere abeslariak dira. Orain hilda dago. Nor da gure pertsonaia?



Orain idatzi zuk. It's your turn. Describe a famous person.

Nor da lagun sekretua?

Ikasgai honetan hau ikasi duzu- In this lesson you have learned

- Pertsona baten deskribapen laburra egiten.
- To give a short description of a person.

- NON eta NONGO deklinabide kasuak.
- The NON and NONGO declinations.

- IZAN aditzaren singularra: NAIZ, ZARA, DA.
- The singular of the verb IZAN.

- BIZI IZAN aditza.
- The verb BIZI IZAN, to live.

- UKAN aditzaren forma batzuk: dut/dituz, du/ditu.
- Some forms of the verb UKAN: dut/dituz, du/ditu.


Hiztegia

Abeslaria	Singer
Ahizpa	A girl's sister
Amona	Grandmother
Anaia	Brother (of a boy)
Bere	His/her (its (bere etxea=her house))
Betaurrekoak	Glasses
Dantzaria	Dancer
Egunkari	Newspaper
Ezkontuta	Married person
Gurasoak	Parents
Hizkuntza	Language
Ile	Hair
Interesgarria	Interesting
Kostaldean	On the coast
Lehiaketa	Competition
Mota	Type
Ondoan	Beside
Orain	Now
Sari	Prize
Zientzialaria	Scientist



Josune Bereziartu


Eskalatzailea. Lazkaokoa, baina Ordizian bizi da. Lazkao eta Ordizia Gipuzkoan daude. Oso eskalatzaile ona da eta sari asko ditu, adibidez **Golden Piton Aguard**. 9a/a+ eskalatu du, munduan 1. emakumea.



<http://www.josunebereziartu.com>

Edurne Pasaban

Mendizalea da. Tolosakoa da, baina Altzon bizi da. Altzo herri txikia da, Gipuzkoan dago, Tolosa ondoan. Errekor handia du: 9 zortzimilako (Broad Peak, Nanga Parbat, K2, Gasherbrun I, Gasherbrum II, Lothse, Cho Oyu, Makalu eta Everest) igo ditu. Gero Wanda Rutkiewicz poloniar-lituaniarra dago; honek 8 igo ditu.



<http://www.edurnepasaban.net/>

Material osagarria

Irakurmena eta mintzamena

A ikaslea

Zer da?



Kontatu ikaskideari testu hau hirugarren pertsonan.
Tell a classmate this text in the third person.

Ni baserritarra naiz. 38 urte ditut. Bakarrik bizi naiz eta emaztea nahi dut. Baserri handia dut. Oso langilea naiz eta orain Lazkaoko azokan nago. Gaur jende asko dago eta oso pozik nago.

Ni dendaria naiz, harategia dut. 48 urte ditut. Bibote handia dut. Herri txiki batean bizi naiz. Gure herrian denda asko daude eta konpetentzia handia dut. Nire lana oso gogorra da, nire bezeroak oso exigenteak dira.

Orain egin esaldi bat edo bi irudiko. Ikaskideak zer lanbide deskribatu duzun asmatu beharko du.
Now write one or two sentences for each drawing. Your partner will try to find out which work you have described.

Irakurmena eta mintzamena

B ikaslea

Zer da?



Kontatu ikaskideari testu hau hirugarren pertsonan.
Tell a classmate this text in the third person.

Ni medikua naiz. Ile luzea dut eta betaurrekoak ere bai. Gasteizkoa naiz, baina Agurainen bizi naiz. Agurain Araban dago, oso herri polita da. Nire lana ere polita da, baina asteburu batzuetan ez dugu jairik. 36 urte ditut eta ezkondata nago.

Ni igeltseroa naiz. Ile kizkurra dut. 45 urte ditut eta lan handia dut orain. Tafallakoa naiz, baina orain ez naiz Tafallan bizi, Iruñean bizi naiz. Iruñea Tafallatik oso hurbil dago. Orain dibortziatua nago eta bi seme-alaba ditut.

Orain egin esaldi bat edo bi irudiko. Ikaskideak zer lanbide deskribatu duzun asmatu beharko du.
Now write one or two sentences for each drawing. Your partner will try to find out which work you have described.

Entzungaia

Listen to the messages left on the answering machine, link them with the text and number them in the order you hear them.

Amaia eta Iruneren erantzungailua



Kaixo, Amaia!

Aitor naiz, Tolosakoa. Bai neska, Aitor Ruiz. Orain Donostian bizi naiz. Deitu, telefonoa: 943 567234. Agur!

Irune? Irune etxean dago?

Ez dago inor etxean. Beno, berdin da. Irati naiz, ikastolakoa. Gaur filma dago zineman, "Buscando a Nemo" . Oso polita da. Deitu, ni etxean nago.

Egun on! Egun on!

Kontestadorea, erantzungailua da. Ez dago inor. Beno, Arantxa naiz, dendakoa. Zure telebista dendan dago. Oso ona da eta ofertan dago, oso merkea. Ez galdu aukera. Gero arte!

Amaia, Amaia!

Joxe naiz, Beasaingoa. Bakarrik bizi naiz, oso triste bizi naiz. Orain, gainera, Lazkaon bizi naiz. Zu zara nire erregina, nire printzesa. Itzuli etxera, vuelve!

Galderei erantzun. Answer the questions

Nongoa da Aitor?

Non bizi da Aitor Ruiz?

Zer dago zineman?

Irune etxean dago?

Non dago Irati?

Nongoa da Joxe?

Non bizi da orain Joxe?